

## 2023ko zerga-araudiaren berrikuntzak

### SARRERAKO OHARRA

Testu hau dibulgazio-dokumentu bat da, inolako izaera ofizialik gabea, eta 2023ko ekitaldiko zerga-araudiaren berrikuntzak jasotzen ditu.

- [1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023rako zenbait zerga aldaketa onesten dituena. \(2023-01-23ko GAO\).](#)
- [4/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, iruzur fiskala prebenitzeko eta haren aurka egiteko neurriak onesten dituena. \(2022-12-26ko GAO\).](#)
- [5/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarrizko ikerketarako mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalak arautzen dituena. \(2022-12-26ko GAO\).](#)
- [18/2022 Foru Dekretua, azaroaren 22koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak eta tributuak berrikusteko erregelamendua aldatzen dituena. \(2022-11-28ko GAO\).](#)
- [56/2023 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, zenbait tributu-erregelamendu aldatzen dituena. \(2023-12-18ko GAO\). Azken xedapenetatik lehen.](#)
- [2/2023 Foru Dekretu Araua, abenduaren 28koa, aurrekontuen luzapenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera zerga arloan izango duen eragina zehazten duena eta zerga eta aurrekontu arloan premiazkoak diren zen bait neurri onesten dituena. \(2023-12-29ko GAO\)](#)

**• 1/2023 FORU ARAUA, URTARRILAREN 17KOA, 2023RAKO ZENBAIT ZERGA ALDAKETA ONESTEN DITUENA. (2023-01-23KO GAO).**

2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarena-ren, aurrerantzean "SZFA"ren, zenbait artikulua aldatzen ditu.

**14. artikulua. Ondare-sozietateak.**

14.1.a). Honako zatidura hau ezartzen da, zeinaren emaitzak % 50etik gorakoa izan beharko baitu, aktiboaren erdia baino gehiago balioez osatuta dagoen edo jarduera ekonomikoari atxikita ez dagoen zehazteko.

Zenbakitzailea: balioak + jarduera ekonomikoari lotu gabeko elementuak.

Izendatzailea: enpresaren aktibo osoa, jarduera ekonomikoetatik datozen banatu gabeko etekinak murriztu gabe.

14.2. Baloretzat ez hartzeko, berariaz sartzen da % 3ko partaidetza, bigarren mailako merkatu antolatutako batean kotizatzen duten sozietate partaidetuen akzioei dagokienez.

**39. artikulua. Sarreraren arloko beste zuzenketa batzuk.**

Aldatu egiten da 5. paragrafoko d) letra:

5.d) Enpresa-jarduerari lotutako ondare-elementuak sute, uholde, hondoratze, sumendien erupzioak edo beste arrazoi natural batzuek suntsitu izanagatik konpontzeko laguntza publikoak jasotzea.

**64bis artikulua. Sorrera berriko entitate berritzaileek egindako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.**

Aldatu egiten dira 64 bis.2 artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoak, eta azken paragrafo bat gehitzen zaio d) letrari, I+G proiektuen finantzaketari dagokionez:

- Proiektua gauzatzen ari den lehen 9 hilabeteetan kontratua izapidetzea.
- Baldin eta SPRIRi txostena eskatu bazaio proiektua hasi aurretik edo proiektua gauzatzen ari den denborako lehen 3 hilabeteetan.
- Sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitu ez bada.

64 bis artikuluari 8. paragrafoa gehitzen zaio, hurrengo edukia duena:

- Gerora sortutako inguruabar teknikoak edo ekonomikoak: abian diren proiektuak gauzatzeko egutegia berregokitzeko aukera.

- Finantzaizailearen kaudimenik ezaren salbuespenezko kasuak: Administrazioari dagoeneko formalizatuta dauden finantzaketa-kontratuetan parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzeko baimena eskatzeko aukera.

#### **77. artikulua. Arrisku-kapitaleko sozietate eta funtsak.**

1. paragrafoa aldatu da.

Halaber, aldatu egiten da aipatutako artikulua 8. paragrafoaren idazketa.

#### **122 bis artikulua. Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabili beharra.**

11. paragrafoko c) letraren azken lerroaren idazketa "azken zergaldi"tik "azken aurreko zergaldi"ra aldatu da, horrela partzialki salbuetsitako erakundeak betebeharrak horretatik salbuesteko erreferentziako ekitaldia 2023an 2022ko berdina delarik, hau da, 2021a.

#### **133 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzen duen sistema informatiko bat erabiltzeko obligazioarekin lotutako arau-haustekak eta zehapenak.**

1.go paragrafoari c) letra gehitu zaio, 4. eta 5. paragrafoak aldatu dira eta 6. paragrafoa gehitu zaio 133 bis artikuluari.

#### **Zazpigarren xedapen gehigarria. 4. atala.**

Berriaz aipatzen dira uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoak, 1. artikuluko 2. paragrafoan jasotzen dituen lotu gabeko errentak, hau da, berregituraketa-eragiketetan sortzen diren errentak (SZFAren VI. tituluko VII. kapitulua).

#### **Hogeita hamargarren xedapen iragankorra. Mozkinen berdinketarako erreserba bereziari 2022ko ekitaldiaren aurretik egindako zuzkidurei dagokienez aplikatu beharreko araubide iragankorra.**

Xedapen iragankor hau gehitzen da, eta aukera hau gehitzen da foru arau honen 52. artikuluan aipatzen diren mozkinen berdinketarako erreserba berezia zuzkitzera bideratutako zenbatekoetarako, 2017tik 2021era bitarteko zergaldietan, biak barne, baldin eta 2022ko urtarrilaren 1etik hasten den lehen zergaldiaren lehen egunean konpentsatzeke badaude:

1) Araudi berria aplikatzea eta konpentsazio-aldia 10 urtera luzatzea. Ez-betetzea gertatuz gero, igoera % 30ekoa izango litzateke.

2) 2021ean indarrean dagoen araudia aplikatzen jarraitzea: 5 urteko konpentsazioa eta % 10eko igoera ez-betetzeagatik.

**• 4/2022 FORU ARAUA, ABENDUAREN 20KOA, IRUZUR FISKALA PREBENITZEKO ETA HAREN AURKA EGITEKO NEURRIAK ONESTEN DITUENA. (2022-12-26KO GAO).**

SZFaren hurrengo artikulua aldatzen ditu.

**120. artikulua. Entitateei behin-behineko baja ematea indizean.**

Zuzenketa tekniko bat egin da 1.go atalaren idazketan, hau da, kobraezin izaera ez dagokio zerga-zorrari erakunde zordunari baizik.

**123. artikulua. Kontabilizatu gabeko edo aitortu gabeko ondasunak eta eskubideak: errentak lortzen direlako ustezkotasuna.**

123. artikulua 6. eta 7. paragrafoak ezabatzen dira, eta egungo 8. paragrafoaren edukia 6. zenbakitzat hartzen da.

**Hamalagarren xedapen iragankorra. Ustezko errenten egozketa.**

Kendu egiten da xedapen hori.

**• 5/2022 FORU ARAUA, ABENDUAREN 20KOA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN OINARRIZKO IKERKETARAKO MEZENASGOAREN ALDEKO PIZGARRI FISKALAK ARAUTZEN DITUENA. (2022-12-26KO GAO).**

- Pizgarri fiskalak ezartzen ditu PFEZn, SZn eta EEZn.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan (aurrerantzean GLHan) oinarrizko ikerketan mezenasgoa sustatzera bideratuak: ekarpen pribatua erakunde jakin batzuek garatzen dituzten oinarrizko ikerketako proiektuak egiteko (SZFAren 62.2 artikulua araberan).
- Mezenasgoaren hartzaile izango dira erakunde horiek hurrengo hauek izan behar dute:
  - 1) Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (BERC), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile gisa ziurtatuta daudenak eta GLHan kokatuta daudenak.
  - 2) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen duen Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuan jasotako unibertsitateetako ikerketa-taldeak, A motako ebaluazioa lortu badute.
- Arauak mezenasgo hori egiteko bi modu ezartzen ditu:

- 1) Dohaintza, dohaintza, ekarpen eta legatuen bidez, eta ondasun, eskubide edo baloreen gaineko gozamen-eskubide erreala eratuz, kontraprestaziorik gabe.
  - 2) Zerga bidez sustatutako lankidetzaz-hitzarmenen bidez.
- Honako prozedura hau ezartzen da mezenasgoa egiteko:
    - Mezenasgoaren hartzaile diren erakundeek Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurumeneko Departamentuari jakinaraztea.
    - Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurumeneko Departamentuak sustatutako proiektuak, horiek garatzen dituzten erakundeak eta horiek jasotako dohaintzak Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraztea.
    - Erakunde dohaintza-emaelek ziurtagiri bat egingo dute jasotako dohaintzaren eraginkortasuna egiaztatzeko.

Honako zerga-pizgarri hauek ezartzen dira Sozietateen gaineko Zergan mezenasgoa egiten duenarentzat:

- Ordaindutako kopuruak edo egindako gastuak gastu kengarrizat hartuko dira.
- % 20ko kenkaria kuotan, kuota likidoaren % 35eko mugarekin.
- Egindako dohaintza dela eta sortutako errenta positiboak salbuetsita daude.

Zerga-onura horiek bateraezinak dira irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan araututakoekin.

**• 18/2022 FORU DEKRETUA, AZAROAREN 22KOA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGEN ETA SOZIEATEEN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUAK ETA TRIBUTUAK BERRIKUSTEKO ERREGELAMENDUA ALDATZEN DITUENA. (2022-11-28KO GAO).**

Ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 37. artikuluari 2. apartatua gehitzen zaio (aurrerantzean, "SZE"), eta, horrela, SZFAren 66. artikulua 1. apartatuaren hirugarren lerrokadan aurreikusitako erregelamendu-garapena betetzen da. Erregelamendu bidezko garapen honek aipatutako artikuluan aurreikusitako lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziko kolektiboak aipatzen ditu:

- a) 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako langileak.
- b) %33ko desgaitasun maila  $\geq$  duten pertsonak.
- c) Iraupen luzeko langabeak. Langabezian 360 egun, azken 540 egunetarik.
- d) Azken 3 hilabeteetan langabezian egondako guraso bakarreko aita edo ama.
- e) Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.
- f) Laneratzeko enpresa batean gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua amaitu duten pertsonak.

g) Gizarte-larrialdietarako, DSBerako, gutxieneko bizitzarako eta antzekoetarako laguntzen onuradunak.

h) Gizarteratzeko programa bati atxikitako toxikomano ohiak.

i) Presoak eta preso ohiak, betiere kontratazioa askatu ondorengo 12 hilabeteetan egiten bada.

j) Atzerrian bizi diren eta Euskadira itzuli nahi duten landun edo langabetuak.

• **56/2023 FORU DEKRETUA, ABENDUAREN 12KOA, ZENBAIT TRIBUTU-ERREGELAMENDU ALDATZEN DITUENA. (2023-12-18KO GAO).**

SZFaren 63. artikuluko berrikuntza teknologikoagatiko kenkaria aplikatzeari begira, beharrezkoa gertatzen da «negozio prozesuen» kontzeptua erregelamenduz zehaztea. Alde horretatik, berrikuntza teknologikotzat hartzen da ondasun edo zerbitzu berriak edo hobetuak merkaturatzea ahalbidetzen duen aurrerapen teknologikoa, edo enpresaren lehiakortasuna hobetze aldera negozio prozesu berriak edo hobetuak ezartzera bideratutakoa. Zehaztapen hori egiteko, 35 bis artikulua sartzten da SZEn.

• **2/2023 FORU DEKRETU ARAUA, ABENDUAREN 28KOA, AURREKONTUEN LUZAPENAK 2024KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA ZERGA ARLOAN IZANGO DUEN ERAGINA ZEHAZTEN DUENA ETA ZERGA ETA AURREKONTU ARLOAN PREMIAZKOAK DIREN ZEN BAIT NEURRI ONESTEN DITUENA. (2023-12-29KO GAO)**

Bere 8. artikulua ezartzen du SZFaren 32. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera, mikroenpresek beren tamainak dakartzan zailtasunengatik zerga oinarrian konpentsazio gisa aplika dezaketen gutxipen portzentajea 100eko 15 izango dela 2023ko zergaldirako.